




Julen Agirre Egibar

Arkitektura ez egonkorrak



Xabier Gantzarain
@gantzarain

CENTROA II (2015)

Arkatz paper gainean. 70,5 x 101 x 3,5 cm

Saiatzen naiz artisten lana ahal bezain hotz eta zorrotz ekartzen orrialde honetara, baina beti ezin da. Batzuetan, zorionez, zeure bizitzara sartzen dira artelanak, eta haurtzarora zaramatzate ezustean. Eta haurtzarora, familia, genealogia bera, arraroa suertatzen zaizu bat-batean, ez egonkorra.

Aitaren aita okina zen, baratzea zeukan etxe ondoan, oiloak. 1899ko urriaren 30ean jaio zen Ikaztegieta, artzain bidali zuten 9 urterekin, Azkoitia okinak behar zirelako iritsi omen zen herrira. Lur zati bat erosi nahi zuen hil aurretik.

Lur zati hartan oilategia jaso zuten seme-alabek. Altzari denda ireki zuten

gero, oilategia biltegi bilakatu zen, bai menik gabe eta presaka jasotako eraikin izugarri bat, adreiluak bistan zituena alde batetik, teilatuan putzuak, barandarik ez balkoietan, hormigoizko blokeak beste aldetik, marrazki honetakoak bezalakoak. Euriarentzat zela esan izan ziguten beti, angeluei esker urak erraz egiteko behera. Barraskiloak egoten ziren irtenguneen azpian. Arkitekto batek esan dit estetikoa dela erabat; ez funtzionala, ulertu dut. Eta ni pareta haiekin gogoratu naiz, tantaka erpinetatik, beti umel. Hantxe eman genuen gure haurtzaroaren zati handi bat, biltegi zikin hartan, paradisuan.

Ez naiz akordatzeko aitonaarekin. Oso txikia omen nintzen Errege egunez bilobei goxokiak banatu ostean ohean etzanda hil zenean. Hor amaitzen da nire abizena.

Biltegiari ez zioten izenik jarri. Ez izenik, ez barandarik, ez teilaturik, beti zegoen bukatzeko. Eta inoiz bukatzen ez.

Erakusketa ikusi nuenean Egian, pentsatu nuen artistak marrazteko modukoa zela, kezkarria, arraroa, bere sendoan ez egonkor. Etxe guztiak bezala. Berak asko jakin gabe, nire artista maiteen zerrendan sartu zen Julen Agirre Egibar (Azpeitia, 1984ko uztailaren 27a). ■